# SAN JOANAK 2023 SEGURA



EKAINAK 22·23·24·25

# AGURRA

Eskerrik asko, Segura!

Hasteko, eskerrak eman nahi dizkizuet niregan jarri duzuen konfiantzagatik eta eman didazuen babesagatik. Hurrengo lau urteetan ere hementxe izango nauzue elkarrekin herria eraikitzen jarraitzeko prest.

Bizi denarentzat egunero ateratzen dela eguzkia esan ohi da eta ez da gezurra izango. Gizakiok naturaren eta orohar unibertsoaren ziklo desberdinak ikusi eta bizitzeko zortea badugu. Ilargia txikitzen eta betetzen, igotzen eta jaisten, eguzkia gerturatzen eta urruntzen, landareak ernetzen, loratzen, lehortzen, biluzten. Naturaren xarma. Eguna joan eta eguna etorri, urteak joan eta urteak etorri,… Aro bakoitza bere garaian txintxo!

Eta horrela etorri zaizkigu aurtengo San Joanak ere. Urteroko moduan bere garaian, hutsik egin gabe, zuzen. Urte honek ere badarama abiada ederra. Dagoeneko San Joanak!

Aurten ere guztion gustukoa izatea nahiko genukeen egitaraua prestatzen saiatu gara udala eta herritarren artean. Ospa ditzagun jaiak umore ederrean, salto eta brinko, elkarrekin gozatuz eta elkar errespetatuz.

Besarkada haundi bana gure artean izango ez ditugun herritarrei.

Ondo-ondo pasa jaiak eta beste besarkada bana herritar guztiei! Gozatu!

Egin irria luze eta negarra labur!

Gora bizitza!

Gora San Joanak eta gora Segura!

**Izarra Urdalleta Iraola,**
**Alkatea**

SEGURAKO UDALA

Eskerrik asko, Segura! Eskerrik asko por la confianza que habéis depositado en mí y por el apoyo que me habéis dado. Seguiré construyendo el pueblo, junto con vosotras y vosotros, durante los siguientes cuatro años también.

Al igual que los ciclos de la luna, el sol y la naturaleza, este año también han llegado los San Juanes puntuales, sin fallar. Hemos intentado, este año también, entre el ayuntamiento y la comisión de fiestas, elaborar un programa que nos gustaría que fuera del agrado de todas y todos. Celebremos las fiestas con buen humor, disfrutando conjuntamente y con respeto mutuo. Un saludo a las y los segurarras que no puedan estar entre nosotras y nosotros. ¡Disfrutad mucho de las fiestas y un abrazo a todas y todos!

---



Euskal ohiturekin jarraituz, Udaletik, festetan etxeko balkoiak IKURRIÑArekin apaintzea gonbidatzen zaituztegu, ez daukazuenontzat Udaletxean bertan eskuragai izango duzue 5€-ko prezioan.

# MENDIZALE TALDEA
## SEGURA KIROL ELKARTEA

1986an sortu zen ofizialki Segura Kirol Elkartea. Elkartea pilota, mendia eta futbolak osatzen dute. Bere helburu nagusiak herrian kirola sustatzea eta herritarrei kirola egitea erraztea dira. Mendizaletasuna sortzeko urte asko daramatzate Euskal Herriko mendiak ezagutzeko irteerak antolatzen. Gainera, bertako kide batzuk Himalayara, Andeetara eta Alpeetara joan dira, besteak beste. Unamendi izen zaharra berreskuratu eta postontzi bat jarri dute bertan. Bere eginkizunen artean daude, batik bat, mendi federazioaren txartelak kudeatzea eta mendi irteerak antolatzea: herri eskolako ikasleekin batera hilean behin, 5 herrien arteko ibilaldia, eta abar. Jardue-ra horiek antolatzeko orduan, eta herritarrei edo elkarteei laguntza eskatu zaienean, beti agertu dira prest. Eskerrik asko bide-lagun guztiei.

Guretzat ohore bat da festetako komisioan aurtengo pregoilaria izendatu izana. Eskerrik asko eta ondo pasa festak eta gora San Joanak!



*Segurako Udalak herriaren alde egiten duzuen lan guztia bene-benetan eskertu nahi dizue. Mila esker!!!*

# **SAN JOANAK** 2023ko BALANTZEAREN AURREIKUSPENA

| KONTZEPTUA | SARRERA | GASTUA |
|---|---|---|
| PERTZAREN IGOERA ETA JAITSIERA (Sua artifizialak barne) | | 1.000,00 € |
| MUSIKA TALDEAK + TXARANGAK + PUZGARRIAK + MAGOA | | 23.000,00 € |
| DANBORRADA + UMEEN EGUNA | | 1.100,00 € |
| SAN JUAN EGUNEKO HAMAIKETAKOA + BERTSOLARIAK | | 2.400,00 € |
| HERRI KIROLAK | | 2.500,00 € |
| PILOTA PARTIDAK | | 4.000,00 € |
| GIZAUNDI ETA BURU HANDIAK | | 200,00 € |
| TXAKOLIN DASTAKETA+SARDINA JANA | 500,00 € | 1.900,00 € |
| SARIAK | | 2.000,00 € |
| PROGRAMAREN INPRENTAKO KOSTUA | 1.100,00 € | 1.100,00 € |
| PUBLIZITATEA | | 600,00 € |
| BESTELAKOAK: argindarra, postuak, autoreen eskubideak,… | 1.200,00 € | 2.000,00 € |
| SAN JUAN SUA ETA AKELARREA | | 2.300,00 € |
| KOADRILA LEHIAKETA | | 700,00 € |
| UDALAREN APORTAZIOA | 42.000,00 € | |

| | | |
|---|---|---|
| GUZTIRA SARRERA ETA GASTUAK | 44.800,00 | 44.800,00 |

## BARRAKAK
Akelarre auzoan egongo dira barrakak eta kale hau ibilgailuentzat itxita egongo da.

## AUTOBUSA
Ekainaren 22tik 25era, geltoki bakarra Madalenan izango da.

## KALE NAGUSIA ITXITA ETA NON/NOIZ EZ APARKATU
Jaietan egunero kale Nagusia plaza inguruan itxita egongo da. Ekainaren 24an, 14:00ak arte, ezingo da Udaletxe aurrean aparkatu. Ekainaren 25ean, arratsaldez, umeen danborrada dago eta Lardizabal, Zurbano eta Unzurrunzaga kaleetan ez aparkatzea eskatzen zaizue.

## KARROZADUNEI OHARRA
Karrozak arduraz gestionatu. Mozorro gauean erabili ostean, bi aukera:
gauean bertan jasotzea edo Beheko Eskoletan iskina baten uztea eta hurrengo egunean bertatik jasotzea.
Plaza inguruan musikarik ez jarri eta goizeko 02:00etatik aurrera karrozetako musika itzaldu mesedez.

## SAN JUAN SUA
Suak irauten duen bitartean, Eliza inguruko argiak itzali egingo dira.

# 16 ostirala

18:00 Frontoi Zaharreko X. pilota txapelketaren finala

# 18 igandea

17:30-19:00 Toka eta Bola txapelketa probintziala

# 20 asteartea

18:30 Tobera Musika Eskolako ikasleen ikasturte amaierako kontzertua plazan eta euria bada Botikaxaharren



# 22 osteguna

## MOZORROTUEN EGUNA

| | |
|---|---|
| 18:00 | Buruhandi eta Gizaundiak |
| 18:00 | Mozorroen topaketa plazan |
| 19:00 | Zopa Pertzaren jaitsiera eta festen hasiera |
| | Aurtengo pregoilaria Segura Kirol Elkarteko Mendizale taldea izango da |
| | Ondoren mokadua plazan Elorri Kultur Elkartearen eskutik |
| 20:00-21:30 | Puro Relajo nafar mariatxi taldearen kontzertua Errebote plazan |
| 21:30 | 2023ko Koadrila Lehiaketako mozorroen sari banaketa |
| 23:00-02:00 | Iratzar erromeria taldea plazan |



2022KO KOADRILA TXAPELDUNAK





# 23 ostirala

## SAN JOAN BEZPERA
## JUBILATUEN EGUNA

| | |
|---|---|
| 10:15 | Goizeresia herriko txistulariekin |
| 11:00-13:30 / 16:00-18:30 | Puzgarriak igerilekuan eta bere inguruan |
| 11:30 | Jubilatuentzat Toka, Igela eta Bote jokoak plazan (izena emateko epea 12:30ean amaituko da). Ondoren sari banaketa plazan bertan eta hamaiketakoa Atseden Elkartean |
| 12:00-15:00 | Jainekin txaranga |
| 14:30 | DBH 1 eta DBH 2 ikasturteetako gaztetxoen bazkaria Danon Gelan edo aurrealdeko patioan |
| 18:00 | Buruhandi eta Gizaundiak |
| 18:30 | Idiazabal eta Segurako gazteen arteko Herri Kirol apustua plazan |
| 19:00-21:00 | Gau Argi erromeria taldea Errebote plazan |
| 19:30 | 2023ko Koadrila Lehiaketako abesti saioa eta ondoren sari banaketa |
| 23:00 | San Joan Sua eta herri-akelarrea |
| 23:45-03:00 | Gau Argi erromeria taldea Errebote plazan |





# 24 larunbata

## SAN JOAN EGUNA
## KOADRILEN EGUNA

| | |
|---|---|
| 10:00 | Plater hausketa Mendotze aldean (Txoritegi Elkartea) |
| 10:15 | Goizeresia herriko txistulariekin |
| 10:45 | San Joan Eguneko meza Parrokian eta prozesioa |
| 12:00 | Bertsolariak, herriko abesbatza eta hamaiketakoa Arabarren plazan<br>Andoni Egaña eta Ane Zuazubiskar bertsolarien saioa |
| 13:00 | Herriko kirolari txapeldunei omenaldia eta herri kirol mistoak plazan<br>Aizkolariak: Iñaki Azurmendi-Ugaitz Mugerza eta Uxue Ansorregi-Irati Astondoa<br>Harri-jasotzaileak proba konbinatuak: Imanol Royo, Gari Garmendia eta Udane Ostolaza. |
| 13:00 | Neska eta mutilen futbitoko finaleko partidak<br>(Txanbolinpe Peña eta Zorroztarri Peñaren sariak) |
| 13:00-16:00 | Joselontxos txaranga |
| 15:30 | Koadrilen arteko bazkaria frontoi zaharrean (txartelak tabernetan salgai).<br>Segurako Gazte Asanbladak antolatzen du. |
| 18:00 – 21:00 | Sakatu Elektrotxaranga |
| 18:00 | Pilota partidak Baratze Pilotalekuan. Sarrera leihatilan: 15€<br>Afizionatu mailan:<br>Senar - Artea Goiburu / Altuna - Julen A.<br>Profesional mailan:<br>Artola - Iztueta / Alberdi II - Albisu |
| 19:00-20:00 | 2023ko Koadrila Lehiaketako jokoak Erreboten eta ondoren sari banaketa. |
| 19:30 - 21:00 / 23:00-03:30 | Disko festa Iñigo Etxenikerekin |






# 25 igandea
## UMEEN EGUNA

10:15 Goizeresia herriko txistulariekin

10:30 Haurren krosa eta jolasak Haitz Lehor Guraso Elkarteak antolaturik

12:00-15:00 Kirkil txaranga

12:00 Izarretan Dantzan dantza modernoko emanaldia Errebote plazan

12:00-14:00 Toka eta Bola txapelketa herrikoia Arboladian. Hiru taldekatze: 14 urte azpikoak, emakumeak eta gizonak

13:00 Txakolin dastaketa, sardina jana eta jatorri anitzeko janari dastaketa plazan

14:00 Haurren bazkaria

15:30-16:30 Hodei magoa plazan

18:30 Haurren danborrada

19:30-21:00 eta 22:30-00:30 Andoni Oilokiegiren kontzertua

23:30 Zopa Pertzarekin kalejira Txanbolinpetik irtenda Tobera musika eskolako trikitilari eta herritarrak lagun direla.

00:00 Zopa Pertzaren igoera eta agur zaratatsua





# 26 astelehena

16:00 XXXIII. Gipuzkoako Itzuliaren 3. etapa

# ASTE NAGUSIA

## EKAINAK 19 astelehena

10:30 Txapel jaurtiketa txapelketa
17:00 Bingo berezia

## EKAINAK 20 asteartea

10:30 Irteera Segurako kaleetan zehar
17:00 Bolo txapelketa

## EKAINAK 21 asteazkena

10:30 Gozogintza tailerra
17:45 Segurako abesbatzaren emanaldia

## EKAINAK 22 osteguna

10:30 Meza egoitzako kaperan
17:00 Merienda berezia familiekin egoitzako patioan

## EKAINAK 23 ostirala

12:00 Jainekin txarangaren emanaldia

## EKAINAK 24 larunbata SAN JOAN EGUNA

Bazkari berezia.
Bazkal aurretik Andoni Egaña eta Ane Zuazubiskar bertsolariak eta Udaleko ordezkariek egoitza bisitatuko dute.

## EKAINAK 25 igandea SAN JOAN BIGARRENA

12:00 Kirkil txarangaren emanaldia



*Ondo pasa festak!*

*gora San Joan!!!*


HOTELA
943 80 10 25
IMAZ
TABERNA
JATETXEA
Labealde
OKINDEGIA · KAFETEGIA
Goizeko 7:30ean irekita
gosaritan aukera zabala
GOZATU SAN JOANAK!
Egunero sukaldea irekita
10:00-23:00
943 80 20 25 egunkariak, goxokiak, lotoa...
692 45 80 95


ONDO PASA FESTAK!!!
mirentxu
Nafarroa Etorbidea 9
Beasain
943.88.04.55
LIBURUDENDA · PAPERTEGIA · OPARIAK
www.mirentxuliburudenda.com · mirentxubeasain@gmail.com


— 1833 —
ONDARRE
www.ondarre.net
GAZTANDEGIA QUESERÍA
LANDETXEA AGROTURISMO
HARATEGIA CARNICERÍA
GURE ZAPOREA EZBERDINA DA
EL SABOR DE LO DIFERENTE
Ondarre baserria
20214 Segura Gipuzkoa
T 943 801 664 M 689 192 508


Zure betiko irratia!!
segura
IRRATIA
89. 2 FM - 103 .8 FM (TOLOSALDEA)
www.segurairratia.eus
943 801 041 - 943 801 347
24 ORDU ETENGABE
GOIERRIKO BAZTARRAK ALAITZEN
Jai zoriontsuak denoi!


Goierrialdea
autobusak
tel. 943 885 969
info@goierrialdea.eus
www.goierrialdea.eus
Ondo pasa festak!


Txokoa
denda
JANARI
EKOLOGIKOA
OKINDEGIA
600 329 354


· Fisioterapia orokorra
· Fisioterapia neurologikoa
· Zoru pelbikoa
· Tad metodoa
· Hipopresiboak
LORATUZ
Gozatu pestetan!
943 117 811 · 747 459 429
loratuzfisioterapia@gmail.com

atseden
TABERNA
11:00etatik gaua arte
Asteburuan: plater konbinatuak, entsaladak, bokatak, hanburgesak, razioak...
609 281 452

GSR
Pertsonarekin inplikatuta
Implicados con la persona
GESTIÓN SERVICIOS RESIDENCIALES
www.gsr.coop
SAN JOAN EGOITZA · 943 80 10 08
FESTAK ONDO PASA!

GOIERRI BIDAIAK
KALE NAGUSIA 21
943 944 289
20200 BEASAIN

Elorri
kultur elkartea
Xabi gurekin.
*Jaiak ongi pasa!*

Sakanaoptika
optometria · audiometria · kontaktologia
www.optikasakana.com
Travesía Intxostia 10 · Altsasu-Alsasua · T.: 948 563 124
*Ondo pasa festak!*

APAIN
ETXEGINTZAKO MATERIALAK
apain@apain-sl.com
943 880 077 · Faxa: 943 888 260 ·
MALLUTZ, 6 · ORDIZIA

ELORRIPE HERRIKOA
OKINDEGIA · TABERNA
Gozoak, plater konbinatuak, ogitartekoak, pintxoak...
Zurbano, 25
603 66 24 10
EUSKAL PRESOAK ETXERA

Era guztietako argi lanak etxe eta lantegietan
Argiztapen Publikoak
Instalakuntza Domotikoak
Antenak eta atezain automatikoak
Telekomunikazio lanak
Musika instalakuntzak eta abar
SODUPE
ELEKTRIKARIA, E.M.
Goardiako Industrigunea 14 - 1. Atzea
20213 IDIAZABAL
Gipuzkoa
Tfnoa: 943801826
sodupe@sodupe.eu

ALDATAGOENABERRI
LORE ETA LANDAREAK

ALDATAGOENABERRI BASERRIA
**SEGURA**
✆ 943 800 489

LAURA
Fruta eta barazki hoberenak
☎ 943 80 16 11
*ONDO PASA SAN JOANAK!*

Izaskun
ileapaindegia
*Laser diodo zerbitzua*
☎ 943 800 002
*Ondo pasa San Joanak!*

oreka
fisioterapia zentrua
Ainitze Jauregi
FISIOTERAPEUTA
☎ 943 80 02 88
646 32 94 79
Lardizabal kalea, 3
*Gozatu San Joanak!!!*

arraindegia
HAIZEBE
*Portutik zuzenean zure etxera*
Eskaerak
SEGURA: 648 806 931
BEASAIN: 635 734 235
LEGAZPI: 620 202 587


CALDERERIA
KORTABERRI S.L.
Tel./Fax: 943 800 412 / 943 801 619
Bº Intxausti, pab. 5 · 20215 ZEGAMA

Bai Reformas
CONSTRUCCIONES RESTAURACIONES
INTERIORISMO REFORMAS
Ezkiaga, s/n
**Beasain**
www.baireformas.com
Tel./Fax: 943 887 640
Movil: 677 577 339
info@baireformas.com

FESTAK ONDO PASA!!!
Izkiña
*jatetxea*
✆ 943 802 169
Segura

MARGOGAI.com
Pinturak, Tresnak, Dekorazioa, industriala, Makineria
DENDA
Oriamendi, 32 BEASAIN
Tel./faxa: 943 88 65 63
beasain@margogai.com
BILTEGIA
Laskaibar 1- 1 BEASAIN
Tel./faxa: 943 88 22 93
lazkaibar@margogai.com
DURAVAL

MUKURU KAMPER
Ordutegia: 10:00-14:00
(arratsaldez hitzorduarekin)
✆ 644 777 070
info@mukuruka.com
Iturriberrialdea 14
**SEGURA**
MUKURUKA.COM

IKERNET
informatika zerbitzuak
943 083 000
info@ikernet.net
Goiz Argi, Segura 20214 (Gipuzkoa)

Konponketak eta mantenimendua
Informatika produktuen salmenta
Web diseinua
Neurrira egindako softwarea
Online segurtasun kopiak
Informatika sareak eta zerbitzariak

kutxabank



## Viernes 16 de junio

**18:00** Final del X Campeonato de pelota del Frontón Viejo

## Domingo 18 de junio

**17:30-19:00** Campeonato provincial de Toca y Bola

## Martes 20 de junio

**18:30** Concierto de fin de curso de los alumnos de Tobera Musika Eskola en la plaza y en caso de lluvia en Botikaxahar

## 22 de junio, jueves
## DÍA DE LOS DISFRACES

**18:00** Gigantes y cabezudos

**18:00** Encuentro de disfraces en la plaza

**19:00** Comienzo de las fiestas con la bajada de la Sopa Pertza.
El pregonero de este año será la asociación de montaña

A continuación bocado en la plaza de la mano de Elorri Kultur Elkartea

**20: 00-21: 30** Concierto del grupo navarro de mariachi Puro Relajo en Errebote plaza

**21:30** Entrega de premios de disfraces del Concurso de Cuadrillas 2023

**23:00-02:00** Grupo de romería Iratzar en la plaza

## 23 de junio, viernes
## VÍSPERA DE SAN JUAN
## DÍA DEL JUBILADO

**10:15** Goizeresia con los txistularis del pueblo

**11:00-13:30/16:00-18:30** Hinchables en la piscina y su entorno

**11:30** Juegos de Toca, Rana y Bote para los jubilados en la plaza (el plazo de inscripción finaliza a las 12:30).
A continuación entrega de premios en la misma plaza y hamaiketako en Atseden

**12:00-15:00** Charanga Jainekin

**14:30** Comida de los jóvenes de 1º y 2ª de la ESO en Danon Gelea o en su patio delantero

**18:00** Gigantes y cabezudos

**18:30** Apuesta de Herri Kirolak entre los jóvenes de Idiazabal y Segura en la plaza

**19:00-21:00** Grupo de romería Gau Argi en Errebote plaza

**19:30** Campeonato de canto y baile de Cuadrillas 2023 y posterior entrega de premios

**23:00** Fogata de San Juan Sua eta Akelarre popular

**23:45-03:00** Grupo de romería Gau Argi en la plaza Errebote

## Sábado 24 de junio
## DÍA DE SAN JUAN
## DÍA DE LAS CUADRILLAS

**10:00** Tiro al plato entorno a Mendotze (Txoritegi Elkartea)

**10:15** Goizeresia con los txistularis del pueblo

**10:45** Misa en la Parroquia y procesión de San Juan

**12:00** Bertsolaris, coro local y hamaiketako en Arabarren plaza

Actuación de los bertsolaris Andoni Egaña y Ane Zuazubiskar

**13:00** Homenaje a los deportistas campeones locales y herri kirolak mixtos en la plaza

Aizkolaris: Iñaki Azurmendi-Ugaitz Mugerza y Uxue Ansorregi-Irati Astondoa

Harrijasotzailes pruebas combinadas:
Imanol Royo, Gari Garmendia y Udane Ostolaza.

**13:00** Partidos de la final de futbito de chicas y chicos (Premios de Txanbolinpe Peña y Zorroztarri Peña)

**13: 00-16: 00** Charanga Joselontxos

**15:30** Comida entre cuadrillas en el frontón viejo (tickets a la venta en los bares. Gazte Asanblada)

**18:00 – 21:00** Sakatu Elektrotxaranga

**18:00** Partidos de pelota en el Frontón Baratze.
Entrada en taquilla: 15 €

Aficionados: Senar - Artea Goiburu / Altuna - Julen A.

Profesionales: Artola - Iztueta / Alberdi II - Albisu

**19:00-20:00** Campeonato de juegos de Cuadrillas 2023 en Errebote y posterior entrega de premios.

**19:30-21:00/23:00-03:30** Disko festa con Iñigo Etxenike

## Domingo 25 de junio
## DÍA DE LA INFANCIA

**10:15** Goizeresia con los txistularis del pueblo

**10:30** Cross y juegos infantiles organizados por Haitz Lehor Guraso Elkartea

**12: 00-15:00** Charanga Kirkil

**12:00** Actuación de danza moderna Izarretan Dantzan en Errebote plaza

**12:00-14:00** Campeonato popular de Toca y Bola en Arboladia. Tres grupos: menores de 14 años, mujeres y hombres

**13:00** Degustación de txakoli, sardinas y cata de comida de diversos orígenes en la plaza

**14:00** Comida infantil

**15: 30-16: 30** Mago Hodei en la plaza

**18:30** Tamborrada infantil

**19:30-21:00 y 22:30-00:30** Concierto de Andoni Oilokiegi

**23:30** Pasacalle con Sopa Pertza desde Txanbolinpe compañados por trikitilaris de la escuela de música Tobera

**00:00** Subida y despedida de la Sopa Pertza

## Lunes 26 de junio

**16:00** XXXIII. 3ª etapa de la Vuelta a Gipuzkoa

# SEXU INDARKERIA MATXISTA
# GUZTION KONTUA DA!

Segurako Udalak,
herritar guztientzat
**jaiak indarkeria matxistarik gabeko gozamen eta ospakizun gune segurua izan daitezen** gogoeta kolektibo bat bultzatu eta zabaldu nahi du:

Gure eguneroko bizitzan emakumeok jasaten ditugun **indarkeria matxista** eta **sexu indarkeria** eta bere **funtzio soziala emakumeak kontrolatzea** da.
Hala, jai giroan sexu indarkeria matxistak (emakumeek eta LGTBI+ pertsonek jasaten dituztenak) ere ezaugarri bereziak ditu, aisialdirako eta gozatzeko eskubidea sexu erasoa dakarten jokabideen inguruko mugarik ezarekin nahasten delako.

**Pertsona guztiak dugu jaiez gozatzeko eskubidea,**
baldintza berberetan eta indarkeriarik gabe, hori bermatzeko konpromiso eta ardura guztiona delarik, udalarena, gizartearena, oro har, gutako bakoitzarena.
Kaleetan libre izatea eta festak norberak nahi duen moduan eta errespetuz gozatu ahal izatea **erantzukizun kolektiboa da.**
Halare, ez dezagun ahaztu, erasoen erantzule bakarrak erasotzaileak direla eta eraso baten aurrean, ez garela epaileak eta emakumearen hitzak duela sinesgarritasuna, **“guk sinisten dizugu”.**

Ospatu ditzagun jaiak
**errespetuz, askatasunez eta erantzukidetasunez**
**indarkeria matxistarekiko eta sexu indarkeriarekiko Zero Tolerantzia** publikoki adierazteko konpromezu aktiboa hartuz.

SEGURAKO UDALEKO PAREKIDETASUN ARLOA

SEGURAKO UDALA